




## Txikizkako merkataritza %3,4 hazi zen EAEn

Txikizkako merkataritza Euskadin  
Urte bakoitzeko otsaila. Indizea




Iturria: INE.

Otsailean, EAeko txikizkako merkataritzaren salmentak %3,4 handitu ziren aurreko urteko hil beraren aldean. Eraitza horri esker, pandemia hasi aurreko urteetan lortu zituen balioetara hurbiltzen ari da indizea. Era berean, txikizkako merkataritzako enpleguak %2,0ko urte arteko hazkundera eskuratu zuen otsailean.

## Azalera handietako salmentak %0,6 gutxitu ziren

Azalera handietako salmentak  
Urte bakoitzeko otsaila. Indizea




Iturria: Eustat.

Azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %0,6 jaitsi ziren otsailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Salmenten bilakaera negatiboa izan zen bai elikaduraren atalean (-%0,4), bai gainerako produktuetan (-%1,2). Hala ere, enpleguak gora egiten jarraitu zuen (urte arteko tasa %4,0 izan zen).



## Etxebizitzen gaineko hipotekak %8,5 gehitu ziren

Etxebizitzen gaineko hipotekak  
Urte bakoitzeko urtarrila




Iturria: INE.

Bi hilabetez behera egin ondoren, hipoteken kopurua %8,5eko igoe-ra batekin hasi zen 2023an. Zehazki, urtarrilean etxebizitzen gaineko 1.800 hipoteka baino gehiago eratu ziren Euskadin, ia-ia 2019ko erre- gistro bera. Bestalde, aurtengo ur- tarrilean mailegatutako kapitala aurreko urtekoa baino %10,1 handi- agoa izan zen.

## Martxoan Estatuko KPIa %3,3ra jaitsi zen

Estatuko KPI indizea  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratu duen aurrerapenaren arabera, **Estatuko KPIa %3,3ra jaitsi zen, otsaileko erregistroa baino bi puntu eta zazpi hamarren behera-go**. Bilakaera hori elektrizitatearen eta erregaien prezioen portaerak era- gin zuen batez ere. Bestalde, azpiko inflazioa hamarren bat murriztu zen, %7,6tik %7,5era.